



**LEGAZPIKO
UDALA**



AGENDA 21. FOROAREN AKTA Legazpiko Tokiko Agenda 21

Eguna: 2006/03/23	Ordua eta iraupena: 18:30an; ordu eta erdi	Tokia: Legazpiko udaletxea
-----------------------------	------------------------------------------------------	--------------------------------------

“Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean. Con la participación de todos hacia la sostenibilidad”

Legazpiko Agenda 21eko batzar honekin garai berri bati eman nahi diogu hasiera. Garai berri honetan Legazpiko Agenda 21eko Foroak egin duen lanari jarraipena eman nahi zaio baina, era berean, elkartzeko eta elkarrekin eztabaidatzeko leku hau sendotu nahi da eta proposamenak aurkezteko eta ekintzak bideratzeko lekua ere izan dadila lortu nahi da.

Horrekin, Legazpiko herriak iraunkortasunerantz bidea egin dezan konprometituta dagoen talde hau osatzen dugunon borondatea bete nahi dugu, horrela jaso baitzen borondate hori joan den 2005eko maiatzean egin zen hausnarketa-batzarrean: “Gogoia dugu gauza zehatzetan lan egiteko, ideiak emateko eta proposamen zehatzak egiteko, elkarrekin ikasteko....”

Ahaleginak egingo ditugu behintzat!

Honako hauek bildu gara gaur:

Izen-deiturak	Ordezkaritza:
▪ Begoña Lekue	Iratzarri elkarte
▪ María Inés Corral	Iratzarri elkarte
▪ Montse Vallejo	APA- Olazabal institutua
▪ Maite Lazaro Benito	APA- Olazabal institutua
▪ Josune Makaia Perez	UGGASA
▪ Antton Reyes Prieto	Legazpiarra
▪ Marivi Aróstegui	Legazpiarra
▪ Iñaki Mauleon	Domingo Agirre LHI
▪ Ruth Barrasa	Domingo Agirre LHI
▪ Milagros Noguera	Legazpiko bizilaguna
▪ Felix Dorronsoro	LBS-USO
▪ Juan Karlos Altzelai	Harri-Urdin
▪ Iñaki Mendia Izagirre	Legazpiko Udaleko zinegotzia
▪ Jose Luis Cid Delgado	Legazpiko Udaleko zinegotzia
▪ Floren Gutierrez San Miguel	“Fundiciones Bereciartu” enpresa
▪ Arantxa Seguro	Haztegi
▪ Jose Ignacio Gil	Gipuzkoako Urak
▪ Belen Madinabeitia	Brinkola-Auzo Elkarte
▪ Leire Gorospe	Legazpiarra
▪ Junkal Fernandez	Legazpiarra
▪ Carlos Villacorta	GSB Acero
▪ Sole Arostegui	Legazpiarra
▪ Bixente Garmendia	Legazpiko Udaleko zinegotzia
▪ Joxan Auzmendi	CEIDA-Legazpi
▪ Javier Iraeta	Legazpiko Udaleko zinegotzia
▪ Juan Ramon Larrañaga	Legazpiko Alkatea
▪ Inma Hernandez	Udaletxeko Agenda 21eko teknikaria
▪ Iciar Montejo eta Zorione Aierbe	Prometea, SC





**LEGAZPIKO
UDALA**



AGENDA 21. FOROAREN AKTA Legazpiko Tokiko Agenda 21

Eguna: 2006/03/23	Ordua eta iraupena: 18:30an; ordu eta erdi	Tokia: Legazpiko udaletxea
----------------------	-----------------------------------------------	-------------------------------

Helburu nagusia: Foroarekin lan egiteko proposamena aurkeztea

Lan egiteko modu berri honetan tartekatuta egingo dira saio informatiboak eta lan zehatza egiteko bilerak

Proposamen honekin Legazpiko Agenda 21eko Foroak informatzeko duen funtzioa mantenduko da baina lan osagarria emango zaio eta, era berean, parte hartzea bultzatuko duen, proposamenak egingo dituen eta lan egingo duen taldea izango da. Hau da zehazki egin den planteamendua:

- Legazpiko Agenda 21eko Foroa urtean bi aldiz elkartuko da eta saio horien helburua informazioa ematea izango da (programatutako ekintzen berri eman, kontsulta zehatzak egin...).
- Agenda 21eko Foroaren barruan, parte hartzea bultzatuko duen eta lan egingo duen talde zehatza eratzea. Talde hori hilean behin elkartuko dela aurreikusten dugu eta bere eginbeharra izango da Ekintza Planeko ekintza zehatzak modu parte hartzailean lantzea. Hasiera batean, Legazpiko Agenda 21eko Foroan parte hartzen duten pertsona eta erakundeak inportanteak direla uste dugu lantalde horretan parte hartzeko.

Proposamen horren aurrean taldean hainbat ideia eta ekarpen egin dira:

- "Bilerak maizago egin beharrak, ez al du pertsonak parte ez hartzera bultzatuko?"
- "Jende gehiago egoteak ez du esan nahi emaitzak hobetoagoak izango direnik; talde txiki batean ere proposamenak lan daitezke".
- "Garrantzitsua da udalerraren ikuspegi orokorra ez galtzea, eta norberaren interesak gaindituz denon onerako izango den horretara iristea lortu behar da".
- "Lantalde bakarra eratu ordez, zergatik ez dira gai desberdinak aztertuko dituzten talde bat baino gehiago sortzen? Horrela eginez gero interes desberdinak ase daitezke eta prozesua bizkortu".
- "Aurreko puntuan esandakoarekin jarraituz, talde txikietan ere egin daiteke lan eta hainbat bilera egin ondoren, bilera orokorra egin daiteke informazioa elkarri emateko".
- "Lantaldean gai eta proiektu zehatzak aztertzeko, onuragarria izango litzateke Legazpiko pertsona eta erakunde gehiago inplikatzeko, hala nola: gazteak, bizilagunen elkarteak, gai edo jardueraren baten gainean kezkatuta dauden herritar edo kolektiboak, ... eta abar."

Bileran parte hartu dutenek gai horien gainean eztabaidatu dute.



AGENDA 21. FOROAREN AKTA Legazpiko Tokiko Agenda 21

Eguna: 2006/03/23	Ordua eta iraupena: 18:30an; ordu eta erdi	Tokia: Legazpiko udaletxea
----------------------	-----------------------------------------------	-------------------------------

Eta, beraz, taldean aztertzen hasiko diren gaiak edo proiektuak aukeratu behar dira.

Horrela, Foroa osatzen duten pertsonen "nahiak" (2005eko maiatzaren 19ko bilera esandakoa kontutan hartuz) aztertu ondoren eta Tokiko Ekintza Planean jasotako proiektuen ezaugarriak eta horiek modu parte hartzailean lantzeko eskaintzen duten aukera ikusirik, Legazpiko Udalak eta Prometea enpresako teknikariek hainbat gai eta proiektu proposatu dituzte lantaldea abian jartzeko:

- **Mugikortasuna** (eskualdeko mugikortasun Plana eta Arau Subsidiarioen berrikuspena kontuan hartuz): herri barruan oinez eta bizikletaz egin daitezkeen ibilbideak diseinatzea...
- **Egun eta jardunaldi zehatzak antolatzea**: adibidez, Erreka eguna.
- Egin den lanaren eta eman diren urratsen berri herritarrei ematea eta, era berean, parte hartzera bultzatu.

Proposamen hori taldeak egin dituen ekarpenekin osatu da. Taldeak ondoko langaiak proposatu ditu:

- **Gizarte arloko gaia**, hala nola:
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonen errealitatea eta beharrak (osasuna, laguntzak...)
 - Irisgarritasuna (mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen egoera, eta abar)
 - Gazteria, beharrak eta dauden baliabideak.
- **Etxebizitza** (lortzea, baliabideak, babes ofizialeko etxeak, eta abar).
- **Hezkuntza eta sentsibilizazioa** arlo desberdinetan: naturako baliabideak eta hondakinak, bide-arauak betetzea (autoa edo bizikleta erabiltzeko ohiturak, eta abar).

Debataren ondoren, erabaki hauek hartu ditugu:

Egin den proposamena onartzea eta Legazpiko Agenda 21eko Foroaren antolaketa eta lan egiteko modu berriari oniritzia ematea; denborak, esperientziak eta emaitzek esango digute bide onetik goazen edo gaia berriz bideratu behar den. Zehazki:

- Lantalderako aurreikusi den bilera-egutegia onartu da (uda bitartean, froga eginez):

- Apirilaren 6an, osteguna.
- Maiatzaren 18an, osteguna.
- Ekainaren 8an, osteguna.

Bilerak Legazpiko udaletxean egingo dira arratsaldeko 18:30an eta ordu eta erdikoak izango dira.



**LEGAZPIKO
UDALA**



AGENDA 21. FOROAREN AKTA Legazpiko Tokiko Agenda 21

Eguna: 2006/03/23	Ordua eta iraupena: 18:30an; ordu eta erdi	Tokia: Legazpiko udaletxea
-----------------------------	------------------------------------------------------	--------------------------------------

- Lantaldearen lan egiteko moduari eta gaiari dagokionez, ohitura eta erritmo berria hartu arte, lantalde bakarra martxan jartzea eta mugikortasunaren gaiari heltzea erabaki da.
- Azkenik, mugikortasunaren gaia aztertuko duen taldean parte hartuko duten pertsona eta erakundeen aniztasuna areagotzeko asmoarekin hurrengo bilerarako deialdia ondoko kolektiboetara bidaltzea erabaki da: gazteak, zikloturistak, Jubilatua, udaltzaingoa, EILUZ ezgaitasun fisikoak dituzten pertsonen elkarteak, bizilagunen elkarteak.

Kontuan hartzekoak:

Bilera hasi aurretik, Juan Ramon Larrañagak eta Inma Hernandezek hainbat datu interesgarri azaldu dituzte. Hona hemen:

- Legazpiko **Agenda 21eko Foroaren osagarri diren ekintzen eta bileren egutegia:**
 - **Eskola-agenda 21eko Foroa:** datorren apirilaren 25ean, arratsaldeko 17:30an, Eskola-Agenda 21eko Foroa elkartuko da udaletxean. Hiru ikastetxetako ikasleek aurtengo ikasturtean energiari buruz egin duten lanaren berri emango digute. Bilera horretarako deialdia bidaliko zaie Agenda 21eko Foroan parte hartzen dutenei.
 - **Bizikleta eta trena elkartzeko jardunaldia:** Bizikleta eta trena biak erabiltzea bultzatzen duen esperientzia pilotu hau Legazpin ospatuko da datorren maiatzaren 28an (igandea) eta Gipuzkoa osoko jendea elkartu nahi da. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera mugikortasunari buruz egin den lanaren emaitzetako bat da (GIZLOGA Foroa).
- Foroaren izenean **RENFERi bidaliko zaion eskutitza.** Brinkolako auzo-elkarteak auzoan burutu nahi diren hainbat ekintza Legazpiko Agenda 21ean sartzeko proposatu dute. Horietako bat, RENFEK obrak egin ondoren auzoan uzten dituen hondakinak kudeatu beharri buruzkoa da. Juan Ramon Larrañaga alkateak RENFERi horren gainean eta Agenda 21eko Foroaren izenean idatzi bat bidaltzea proposatu du.

Bestetik, debatean zehar hainbat eskari jaso dira eta aktan jaso ditugu dagokionak horien gainean hausnar dezan:

- **Herritarrentzako Arreta Zerbitzua hobetzeko eskaria:** aurkezten diren proposamenak, kexak, eskariak,... erantzutean, kontrol eta jarraipen zehatzagoa egin beharra antzeman da.
- **Musika Eskolara joateko bidea arriskutsua da eta horri irtenbide bat aurkitu beharra** ikusten da.

Bukatzeko

Eskerrak ematen dizkiegu gaurko bileran parte hartu dutenei eta gogoan izan, **hurrengo bilera datorren apirilaren 6an, arratsaldeko 18:30an, udaletxean** izango dela.

Ordurarte, milesker eta ongi izan!